



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-04-05**

VIIURTEA 1.400.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

ESTHER ALDUNTZIN DEKORATZAILEA

## «Norbera bere espazioan ongi sentiaraztea da nire betebeharra»

**LEITZA** Etxebizitzak atontzen egiten du lan leitzarrak, antolaketatik hasi eta ñabardura txikiena aintzat hartuz

**HARREMANA** «Garrantzitsuena jendea ongi ulertzea da eta berak barruan duena ateratzen laguntzea» 6-7



N. GARZIA

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte VII. Aste Misiolarian

**IBARRA** Etzi hasi eta apirilaren 13ra arte hitzaldiak, meza, afaria eta kirola izango dira 6

«Gehiegizko zikinkeria eta txikizioak» dira Sortzez Garbia plazako arazoak

**TOLOSA** Plazaren egoeraren inguruan jardun dute 3

Obrako langile bat harrapatu eta larri zauritu du auto batek N-1 errepidean,

**TOLOSA** Asuncion klinikara eraman zuten zauritua 3



txanda: 943 671 427.

**L** **Laburrak****Ingurukoekin harremanak hobetzen ikasteko**

**ALTZO** ● Elkar komunikatzen eta gainerakoekin ditugun harremanak hobetzen ikastea hitzaldia izango da etzi, astelehena, Udal Ekintza eta Batzar Aretoan, 19:00etan, Kutxaren laguntzaz. Helburua komunikazioarako trebetasunak hobetzea eta gizartearen eragokio batean moldatzea dira.

**Eskaletzeko aukera, gaur rokodromoan, 17:00etan**

**ASTEASU** ● Gaur, 17:00etatik aurrera, Asteasuko rokodromoan eskalatzeko aukera izango dute Aiztondo bailarako gazteek. Deialdi irekia izango da.

**Tolosa Kup txapelketarako izen-ematea, etzi hasita**

**TOLOSA** ● Etzi has daiteke Tolosa Kup 2008n izena ematen, eta hilaren 21era arte izango da horretarako aukera. [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean edo Gazte Informazio Bulegoan egin ahaliko da. 75 euro ordaindu beharko da izena emateko. Txapelketarako zozketa hilaren 22an egingo dute, 18:00etan, Kultur Etxean.

**Aire girotuari buruzko ikastaroa etzitik aurrera**

**TOLOSA** ● Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak Aire egokituko instalazioen muntaia ikastaroa antolatu du. Etzi hasiko da, eta oraindik ere lekua dagoela izena emateko adierazi dute. Ikastaroa langileei zuzendurikoa da, eta ikastetxean edota 943 651147 telefono zenbakira deituta eman beharka dute izena animatzen direnek. Doan izango da.

**Adimen emozionalari buruz hitzaldia**

**TOLOSA** ● Datorren asteazkenean, hilaren 9an, adimen emozionalean aditua den Jose Antonio Gonzalezek *De la inteligencia fracasada a la inteligencia para el éxito y bienestar* gaiaren inguruan hitzaldia emanango du Laskorain Ikastolan. Hain zuzen ere, Usabalgo Areto Nagusian izango da, 19:00etatik aurrera.

# Noaren kontzertua salatzen elkarretaratzerara deitu dute

**Tolosa** » Palestinaren aldeko Biladi elkarteak deitu du, kontzertuaren egunean, hilaren 11n Leidor aretoaren kanpoaldean.



Noa abeslari israeldarra. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Datorren ostiralean, hilaren 11n, *Mundua Tolosan* zikloaren baitan, Noa Israeldar abeslari ezagunak kontzertua emango du, Leidor aretoan. «Artistaren jarrearekin ez daudelako ados, kontzertu hori salatu asmoz», Biladi Palestinaren aldeko elkarteak elkarretaratzea burutuko du kontzertuaren egunean Leidor aretoaren kanpoaldean.

Jesus Artetxe Biladi elkarteak kideak dioenez, «Noa militarra da, eta Gazan Bonbardaketak izan diren unean, esaterako, 2002an, han zegoen, orain erreserba bezala dagoen arren. Gainera, han soldadutza ez da derrigorrezkoa, han konfliktu bat dago, eta posizionamenduari argi bat izan behar duzu».

Artetxek azaldukoaren arabera, «badirudi Noarentzat bakezaletasuna amaitzen dela Gobernuak erailtzeko eskatzen dizune-

an, eta agindua bete besterik ezin duzunean egin, izan ere, justifikazio ohikoena da, agindua bete baino ez duzula egiten esatea; beraz, zein da adierazpen nazi baten eta Noaren arteko desberdintasuna?».

Artetxek dio artista israeldarrek ez duela ez Gazan ez Cisjordanian kontzerturik eman, Tel Aviv-etik ordu erdira egon arren; «baina, Daniel Barenboim bezalako artista handiak izan dira Ramalan egoera hain desegonkorra izanagatik ere».

Biladi elkarteak argi utzi nahi du «Noa Israelgo Gobernuaren iritzi

berekoa» dela, hau da, «okupazioaren errua Palestinak duela uste du berak ere; Ariel Sharoni eginko gorespenek ere argi uzten dute zein den bere pentsakera; Bestalde, palestinar errefuxiatuen itzuleraz dio, ONUren erresoluzioaren itzulerarako eskubidea 60 urtez bete ezin izan ez duten 4 milioi errefuxiatuarentzat ez dagoela lekua. Baina, hori bai, berak, iparramerikarra izanik, eskubide hori izan zuen judua delako».

Jesus Artetxek «Noa artista ez baino pertsona» kritikatzan dutela azaldu du. Hala, eragile, erakunde eta Noaren jarraitzaileei luzatu nahi diete mezua: «Mesedez, duintasuna eta Palestinako herritarrek kontuan izan, artista hau kontratatu, promozionatu edo bere kontzerturen batera joan aurretik. Palestinako herritar guztiak askatasunean abestu ahal izango dutenean orduan izango da Noa ongietorria hemen kantatzeko». Kontzertu honekiko eta artistarekiko desadostasuna adierazteko, kontzertuaren egunean, hau da, hilaren 11n Leidor parean, 20:00etan, elkarretaratzea egingo dute «Noa abeslari israeldar sionistaren ekitaldia salatzen».

# Musika Eskolako ikasleak VI. Akordeoi Topaketan ariko dira bihar

**Tolosa** » 60 ikasle izango dira bertan, Amaia Lizaso, Arantxi Padilla eta Koldo Tarragonaren zuzendaritzapean.

**ERREDAKZIOA**

VI. Akordeoi Topaketa izango da bihar Elgoibarren, eta bertan hartuko dute parte Tolosako Udal Musika Eskolako ikasleak. Hain zuzen ere, 60 ikasle ariko dira Amaia Lizaso, Arantxi Padilla eta Koldo Tarragonaren zuzendaritzapean. Topaketan, denera, 341 akordeoi-jotzaile, 345 koralista eta 55 perkusio-jotzaile elkartuko dira.

2005an egin zen III. Akordeoi Topaketa Tolosan izan zen, eta Musika Eskolatik azaldu bezala, «arrakasta handia izan zuen, marka guztiak hautsi zituelarik. Gauza bera opa diegu Elgoibarko antolatzaleei ere».

# Dantza eta trikitixa doinuak, izango dira bihar, Berrobiko plaza berrian

**ERREDAKZIOA**

Herrian inauguratu berri duten enparantza aprobetxatuz, Berrobiko Udal Kultura Batzordeak bere proiektuekin jarraituz, urteko kultur eta musika egitaraua antolatu du, hileroko maiztasuna izango duelarik. Egitarau honi bihar emango diote hasiera ekitaldi bereziekin.

17:30etik 21:00etara bitarteko ekitaldia antolatu dute. Hasiera kale-jira batekin emango diote. Kalejiraren ondoren, dantza eta trikitixaren txanda izango da, Urarte-Triki taldeak animaturik. Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu ekitaldi honetaz gozatzerakoan joan daitezen.

# Azken egunetako euriteengatik Tolosako ura ez da edangarria

**Tolosa** » Larramendi kalean eta Donostia etorbidean izan ezik ez dela ura kontsumitu behar adierazi du Udalak.

**ERREDAKZIOA**

Azken egunetako euriteen ondorioz Tolosako ura ez dela edangarria adierazi du Udalak, eta Larramendi kalean eta Donostia etorbidean izan ezik, gainontzeko auzoetan urik ez edateko ohartarazi dute.

Azken egunetan izan den euritea dela eta, Tolosako Monteskuetako San Blaseko deposituetatik etortzen den ura ez delako kontsumitzeko modukoa diote teknikoei. Beraz, Udalak azaldukoaren arabera, «besterik esan arte, ez da ura kontsumitu behar Tolosan, bi leku hauetan izan ezik: Larramendi kalean eta Donostia etorbidean».

Monteskuetako San Blaseko deposituek herri inguruan dauden iturburu txikietatik hartzen dute ura eta azken aldi honetako bezalako euriteen ondorioz ura arreo-

etortzen da eta kutsadura mikrobiologikoa areagotu egiten dela azaldu dute.

Ura hornitzeko sistema honen ondorioz, Tolosak arazo jakin batzuk jasan behar izaten ditu uraren kalitateari dagokionez. Hala, arazo hau konponduta geldituko dela Ibiurren ura potabilizatzen planatzen dutenean esan dute, Tolosak ura handik hartuko baitu.

Arazoa lehenbailehen konponduko delakoan, Tolosako Udalak barkamena eskatu nahi die arazo honek eragozpenak sortzen dizkien bizilagunei.

**H** **Hilberriak****JOSU ARRIETA AZPIAZU**

Mila esker Lagun Onak M.B. elkartean egin duzun lanagatik.



Lagun Onak Mendi Bazkuna



**AZPEITIA**  
2008ko  
apirilaren 5a

**GIOVANNI SULIS ZEDDA**

Gure artean izango zera beti

Gorostola-Iribar sendia

Hileta oharra: Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezela gaur larunbata, arratsaldeko 19:00etan, San Pedro Apostol Parrokian egingo den hiletara. Aidez aurretik, mila esker.



**ZUMAIA**  
2008ko  
apirilaren 5a

**E** **Eskertza****JUAN LUIS BENGOTXEA TEJERIA**

Bere familiak eskerrak eman nahi dizkizue hileta mezan izan zinetenoi. Baita ere doluminak eskaintzera hurbildu zineten guztiok.

Villabonan, 2008ko apirilaren 5ean





Sortzez Garbiako parkean sortzen den zikinkeria eta txikizioak dira arazo nagusienetako batzuk. E. EZBEIZA

## «Gehiegizko zikinkeria eta txikizioak» dira Sortzez Garbiako arazo larrienak

**Gizaertea** » Sortzez Garbia plazaren egoeraz eta etorkizunera begira egin beharrekoaz mintzatu ziren herenegun.

### ESTI EZEIZA

24 pertsona bildu ziren herenegun iluntzean Sortzez Garbia plazaren egungo egoeraren eta etorkizunaren inguruan hitz egiteko. Bertan, bizilagunak, zaharren etxeko biartekoak, dendetako arduradunak eta eskolako agenda proiektuko parte-hartzaileak, ikasle zein irakasle, bildu ziren. Batzarraren dinamizazioa Tolosako Ingurumen Eskolako hezitzaileen ardurapean egon zen.

Bileraren helburu nagusia, alde batetik, parkearen inguruan dau-

den arazoak, gabeziak eta beharrik atzematea zen. Ondoren, denen artean irtenbideak proposatzeko Udalarari. Gero, bertako ordezkariak, parkearen berrikuntza lanak egiteko garaian kontuan har zituzten.

Herenegun gauzatutako ekitaldian, Udalak eskuetan duen aurreproiektuaren nondik norakoak aurkeztu zituen, «egitismo bat besterik ez dela azpimarratuz». Hau da, aurreproiektua ez dago itxita eta ekarpenak barneratzeko aukera dago. Administrazioaren proposamen honek, duela bi ikasturte Eskolako Agenda 21ean landutakoari erantzuten dio. Egindako azterketari esker, ondorioztatu zuten, nerabeek jolasteko leku egokirik ez dutela eta herrian dauden jolas-parkeak haur txikiei zuzenduta daudela. Hala, ikastetxe-

tan atzemandako gabeziak eta beharrik zein proposatutako irtenbideak udalbatzari helarazi zituzten, kontuan har zitzan. Dena den, Sortzez Garbia plazaren inguruan inguruan arazo ere atzeman zituzten aipatutako lanean, eta ikasleek konpromisoak hartu zituzten. Horien artean, ez zikintzea, parkea txukun mantentzea, helduak errespetatzea...

### Bileraren nondik norakoak

Batzarrera hurbildu ziren partaideak hiru taldetan banatu zituzten, hauek bakoitzean, multzo bakoitzeko ordezkariak zeudelarrik: bizilagunak, agureak, dendariak eta ikasleak. Partaide bakoitzak parkearen inguruan ikusitako arazoak idatzi behar zituen bere orrian eta ondoren taldekideei azaldu. Jasotako arazo guztiak

kartulina handitan idatzi ziren eta partaide bakoitzak, berarentzat garrantzitsuenak zirenak aukeratu zituen.

Arazo larrienezatik zikinkeria jo zuten. Hau paperontzi faltagatik, hauek ez direlako errespetatzen eta jendearen alferkeriagatik dela ondorioztatu zuten askok. Bestetik, etxeetako eta garajeetako sarrereten egindako pintaketez ere kexatu ziren. Gazteek helduekiko errespetu falta agertzen dutela ere salatu zuten batzuek, eta beste batzuek, nerabeentzako estalpe eta leku egokituaren faltaz ohartarazi zuten. Beste bi arazo larrienak zirela aipatu zuten, zainketa falta eta jolas arrisksuak praktikatzen direla inguru horretan.

### Proposatutako irtenbideak

Batzarraren bigarren zatian zere-ndatutako sei arazo nagusiei irtenbideak ematen saiatu ziren. Honetarako, berriro taldeka banatu ziren, eta ondorengo proposamenak bota zotizten. Zikinkeria-rena konpontzeko: zakarrontziak erabiltzea eta gehiago jartzea, lur-erera ezer ez botatzea, kontzientzia hartzea eta parkean zaintza zerbitzua ipintzea.

Txikizioei aurre egiteko, berriro ere, zaintza zerbitzua jartzea, jai egunetan, Udaltzaingoa bertatik erronda egitea eta kontzientziazioa aipatu zituzten. Errespeto faltari dagokionean ere azken hau proposatu zuten.

Nerabeentzako leku edo parke aproposen beharri dagokionean, leku apropos bat bilatu beharra dagoela komentatu zuten. Baita proposatu zuten, herriko beste hainbat plaza egokitzea, herrian zehar azterketasakon bat egitea aisirakoguneak bilatzeko... Zainketa falta dela eta, zaintza zerbitzuarena eta Udaltzaingoa errondarena aipatu zuten berriro.

Azkenik, jolas arrisksuak direla eta, Poeta Lizardi plaza berreskuratzea eta kontzientziazioa nahiz sentsibilizazioa beharrezkoak zirela aipatu zuten.

## Obrako langile bat harrapatu du auto batek N-1ean, Tolosa parean zihola

**Ezbeharrak** » Asuncion Klinikara eraman zuten berehala zauritua; 42 urteko ibartar bat da.

### ERREDAKZIOA

42 urteko langile bat larri zauritu zen herenegun gauean Tolosan, N-1 errepidean. Lanean ari zela Renault Space markako ibilgailu batek harrapatu zuen, Ertzaintzak azaldutakoaren arabera. Gizonezkoa da zauritua, JCM, eta Ibarroko bizilaguna. Santa Luzia auzoaren parean izan zen istripua, eta langilea Asuncion ospitalera eraman zuten.

N-1eko zubibideko konponketak egiten ari diren langileetako bat da zauritua. Istripua 23:30ak alde-rrera ezer ez botatzea, kontzientzia hartzea eta parkean zaintza zerbitzua ipintzea.

Txikizioei aurre egiteko, berriro ere, zaintza zerbitzua jartzea, jai egunetan, Udaltzaingoa bertatik erronda egitea eta kontzientziazioa aipatu zituzten. Errespeto faltari dagokionean ere azken hau proposatu zuten.

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

<b>OSASUNA.</b>	Osasun z.: 943 653212
<b>Alegialdea.</b>	Medikua: 943 65 23 39
<b>Anoeta-Alkiza-Hernialde.</b>	Medikua: 943 65 23 39
<b>Asteasu.</b>	Medikua: 943 692423
<b>Berastegi-Elduain.</b>	Medikua: 943 889003
<b>Baliarrain.</b>	Medikua: 943 683361
<b>Bidegoian.</b>	Medikua: 943 681134
<b>Ibarralde.</b>	Osasun etxea: 943 672411
<b>Ikaztegieta.</b>	Medikua: 943 653329
<b>Irura.</b>	Osasun zentroa: 943 690720
<b>Leitza.</b>	Osasun z.: 948 510800
<b>Orendain.</b>	Medikua: 943 655595
<b>Orexa.</b>	Medikua: 943 682228
<b>Tolosa.</b>	
<b>Anbulatorioa, larrialdia:</b>	943 461111
<b>San Esteban:</b>	943 006800
<b>Germikako arbola:</b>	943 006900
<b>Amarozko dispen:</b>	943 672637
<b>Asuncion klinika:</b>	943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
<b>DYA:</b>	943 672536
<b>Gurutze Gorria:</b>	943 674888
<b>Villabona.</b>	Anbulat.: 943 006970
<b>Zizurkil.</b>	Aiztondo zerb.: 943 693930
<b>GARRAIOAK.</b>	
<b>Renfe:</b>	902 24 02 02
<b>Donostiako autobusa:</b>	943 361740
<b>Tolosaldeko bus:</b>	943 650621
<b>Leitzarango autob.</b>	948 221015
<b>Taxia:</b>	943 670420
<b>Taxia (Leitza):</b>	608 873016
<b>BESTERIK.</b>	
<b>Ertzaintza:</b>	943 538820
<b>Tolosa-Udaltzaingoa:</b>	943 675858
<b>Tolargi:</b>	943 650016
<b>Iurrerandi egoitza:</b>	943 670325
<b>Tolosa gasa:</b>	943 675320



## «Gorria da aurten apirila»

**POLITIKA** » Apirila Gorriko ekimenei atzo eman zieten hasiera. Sanblaspeko gazte asanbladak antolatuta Errepresioaren aurka, askapen nazionalaren eta sozialismoaren alde izeneko hitzaldia eskaini zuten Boltze eta Euskal Herria Sozialista aldezkariko kideek. Mintzaldia entzuteko asmoz 40 lagun inguru bildu ziren Otsabi gazte lokalean. Hurrengo jardunaldia hilaren 11n izango da, ordu berdinean, hau da, 18:00etan, gai nagusia Palestina izango da. E. EZBEIZA



Sei ekitaldi ezberdinez osaturik egongo da etzi hasi eta aste guztia iraungo duen VII. Aste Misiolaria. HITZA

## Hitzaldiak, meza, afaria eta kirola etzi hasiko den VII. Aste Misiolarian

**Ibarra** » Etzi hasiko den arren Aste Misiolaria, atzo 'Arruperen begirada' izeneko erakusketa zabaldu zuten.

### ASIER IMAZ

Ibarratik misio taldeak VII. Aste Misiolaria antolatu du etztetik apirilaren 13ra bitarte. Ekitaldi ezberdinez osaturiko 6 jardunaldiak, elizan eta parrokiako lokaletan burutuko dira. Horretaz gain, Belabieta kiroldegian II. Ziklo Indor Maratoia lehiatuko da apirilaren 12an, larunbatean.

Aste Misiolaria etzi hasiko den arren, atzo zabaldu zituen ateak, *Arruperen begirada* izena daraman erakusketarekin.

### Pobreak eta pobrezia

Ibarratik misio taldeak antolatutako jarnunaldien helburuetariko bat, «Hirugarren Munduko behartsuekiko gure sentiberatasuna biziortzea eta zabalzea da». Ho-

rretarako sei ekintza antolatu dituzte, horiekin «pobrezia aurrera emana nahi dugun mundualdi berri baten aldeko apustua eginez».

### II. Ziklo Indor Maratoia

Apirilaren 12an Ziklo Indor Maratoia antolatu dute Belabieta kiroldegian, 16:00etatik aurrera. Izena eman nahi duenak, 943 6715 44 telefono zenbakira deitu beharko du edo kiroldegira agertu. 10 euro ordaindu beharko dira horretarako eta epea apirilaren 10ean amaituko da.

### 'Arruperen begirada'

Pedro Arruperen bizitzako esposizioa zabaldu zuten atzo parrokiako lokaletan. Apirilaren 13ra bitarte zabalik izango da; goizetan 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 17:00etatik 20:00etara.

Erakusketan Pedro Arruperen bizitza azaltzen da 86 argazkiren bidez. «Arrupe euskal pertsonai handi bat izan zen, mundu guztian misioetan ibili izan zena».

### » EGITARAUA

#### Apirilak 7, etzi

■ **20:00.** Pedro Arruperen biografi buruzko hitzaldia, Angel Perez Gomez-en eskutik.

#### Apirilak 8, asteartea

■ **20:00.** Axentxio Iguaran-en hitzaldia; *Islam-en lurraldeetan misiolari baten testimonioa* izango da gaia.

#### Apirilak 9, asteazkena

■ **20:00.** Javi Hernaez-en hitzaldia. *Angolako Misioa* izango da gaia.

#### Apirilak 11, ostirala

■ **Afari solidarioa.**

#### Apirilak 12, larunbata

■ **16:00 (3 ordu).** Spinning. Elkartasunezko Maratoi Solidarioa Belabieta Udal Kiroldegian.

#### Apirilak 13, igandea

■ **Eukaristi Misiolaria.**

## Ongi etorri!



### » Zilarrezko Jaurtiketa

#### Jon Altuna

**G**aurkoan berri on bat aipatuz hasi nahi nuke idatzia. Jende ugari baina ibartarrak bereziki zoriarekin gara, izan ere, sei urte beren etxetik urrutiziegan batean igaro ondoren, Ekaitz eta Eider berriro gure artean dira. Horregatik eta niri dagokidan aldetik ongiatorria luzatu, herriko ongiatorrian izatea ez baitzitzaidan posible izan.

Futbolaren ildotik zer esan, zaharrak berri. Etxean Teneriferen aurka garaipen ikusgarria lortu ondoren, aste honetan Salamankaren aurka errealitate gordinera bueltatu ginen. Etxean emaniko

itxura paregabe hori kanpoan desagertu egiten da eta honekin jarraian galtzen dugun bosgarren partida da. Kanpoan egiten ez ditugun lanak etxean osatu behar eta horretarako aste honetan euskal derbia dugu Alaves-en aurka. Tentsioko partida izango da, bi taldeak antzeko gaude eta biontzat beharrezkoa da garaipena lortzea jeitsiera postuak ekiditeko.

Azkenik, eta amaitzeko euskaldunon kirolera bueltatu behar dugu ezinbestean. Azitia aztitasunean hasten denean geldiezin da. Txapelketa honetan momentuko pilotari onena dela argi erakutsi du eta falta zitzaion txapela bakarra buru gainean ezartzea lortu du. Orain gainera urteko txapelketa garrantzitsuen dator, buruz burukoa. Irujozaleak irrikaz ikusten ditut txapelketa honekin, ikusiko dugu nola dihoan eta denborak jarriko du bakoitza bere lekuan. Nik apustua egina dut jada, Aimirrek baietz aurtan hirur txapelak lortu.



## 140 motozale eta euria etsai biran

**IBARRA** » Langostino Moto Kultur Elkartearen bigarren 2008ko bigarren bira iragan igandean egin zuten. Ibarra-Gares (Nafarroa)-Ibarra. 140 motozale elkartu ziren eta itzuleran euria ere etsai izan zuten. Arazoak ere ez ziren falta izan igandean, itzuleran taldea bitan zatitu baitzen, horren ondorioz, antolatzaileek barkamena eskatu nahi izan dute, «eta espero da horrelakorik berriro ez gertatzea». Horretaz gain, apirilaren 27an egingo den birarako izena aurrez ematea eskatu dute. A. IMAZ

## VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413  
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio  
epea:  
Martxoaren 31tik  
Apirilaren 11ra arte



Ernioe B.H.I.  
Villabona

Ernioe B.H.I. Ikastetxea.  
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel./faxa: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

Aurtan ere  
abian da Tropela!

Lehiaketak sarean, euskaraz,  
doan eta sariekkin...  
Izen ematea dohainik.  
Izen emateko epea: martxoaren 31tik E. 12:00h  
tropela.net

hitza



## Dantza konpartsa festetan antolatu nahian

### ERREDAKZIOA

Alegiko jaiak heltzeko hiru hilabete pasatxo gelditzen direnean, herriko helduen dantza taldeko ikasleek proposamen bitxi eta berri-zaile bat luzatu nahi dute. karmenetan, dantza konpartsa.

Izan ere, jaiak parte-hartzaileagoak izateko xedearekin Dantza Konpartsa herriko eta zabala antolatu nahi dute.

Egitasmoa gauzatu dadin deialdi ireki bat egin dute ostegunerako, 19:30ean, Kultur Etxean.

Bertan, sortu nahi den Dantza konpartsa inguruko xehetasu-inei buruz hitz egingo da: hala nola, festetan dantza egiteko entseguen datoren zehaztapenak eta, oro har, egun horretarako prestatu daitekeen egitarauaz: kalejira, poteoa, afari edo bazkaria eta abar.

## Behar-Zana Udaberrin

### ERREDAKZIOA

Gaur, Behar-Zana pilota eskolako Ordozgoiti-Inza jubenilek eta Karrera-Bereziartu kadeteek Gipuzkoako Udaberri sariko finalerdiak jolatu dituzte. Kadeteek lehen mailan, Astigarragan Mundarro taldearen aurka 17:00etan eta finallean sartzeko aukera polita dute.

Jubenilek, berriz, Amasako pilotalekuan izango dute zita 16:00etan. Oreretakoen aurka jo-

katuko dute eta faboritoak Behar-Zanako kideak izango dira.

Bestalde, Behar-Zanako infanti-lerik Rico-Otaegi eta Ormazabal-Otaño bikoteek Alegian jokatuko dituzte Udaberriko partidak 16:00etan hasita. Amaizteko, Berastegin orain gutxi Gipuzkoako eskolarteko txapelketa irabazi duten Labaka-Erasun alebinek errendimendu txapelketako lehen partida jokatuko dute 16:30ean.

## Vazquez: «Ikuskaritzak arrazoia eman dit»

### ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Ubare auzoko obretan «segurtasun neurri guztiak ez zirela betetzen» zioen Raul Vazquez PPren zinegotziak Zizurkil, eta atzoko prentsaurrekoan, Laneko lurraldeko ikuskaritzak arrazoia eman ziola adierazi zuen.

Regina Otaola Lizartzako alka-

teak (PP) adierazi zuen, «zinegotzi hau Udalak lagundu beharrean, bere kontra ia agertu» dela, eta «burugabea deituz eta herritarrei egia ez zioela esanez».

Gaur egun, aipatutako obretako ziurtasun akats horiek zuzendu ditu Udalak eta Vazquez zinegotziak Udala zoriondu zuen.

## Haur antzerkia, gaur

### ERREDAKZIOA

Gaur arratsaldean, Villabonako Gurea aretoan haurrentzako antzerki proposa izango da Glu-Glu produkzioen eskutik. 18:00etan izango da, eta sarrerak lau eurotan daude salgai. Txanogorritxo izango da protagonista gaurkoan.

Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak izena du antzerkiak. 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat da proposa, eta ordubetez antzerkiak gozatu ahal izango dute. Betiko Txanogorritxo eta otsoa izango dira amonaz gain, baina tar-tean gertatzen direnak ez dira berdinak izango: bere bidetik ez jarraitzeko hainbat arrazoi izango ditu...

Ugaitz Alegria, Larraitx Garcia, Libe Garmendia eta Urtza Zuazo

dira Galder Perez zuzendariak egindako obra honetan lan egiten duten aktoreak. Gurasoek ere gus-tura ikusteko antzerkia da.

## Zurea da hitza info

## Sagardotegirako txartelak salgai

### UGARTEKO ELKARTEKO BATZORDEA

Badira ia 4 urte paseak lehenengo aldiz sagardotegira joan ginela Ugartetik autobusean, 2004ean izan zen. Ondo atera zen eta ordu-tik urtero errepikatzen da, Ugarte-ko elkarte batzordean egotea to-katzen zaien antolatzen dute. Giroa mundiala izaten da!

Aurten ere badator eguna, jada jaso dugu gonbidapena gure etxe-tan. Esan bezala Ugarteko Elkar-

retik antolatzen da baina irekia izar-tan da, autobusean elkartzen gara ugarten bizi direnak, kanpora jo-andakoak, kanpotik etorritakoak, lagunak, familiarakoak, elkarteko bazkideak eta ez bazkideak.

Beraz, urteroko ohiturari jarraituz aurten ere Astigarragako Petri-tegi sagardotegira bazkaltzera joa-teko autobusa antolatu da, hilaren 12an, larunbata. 12:30 ean Ugarte-ko plazatik abiatuko dira.

Prezioa: helduek 32 euro inguru, eta umeek 24 euro (14 urtetik beherakoak). Prezio honetan bai bazkaria eta bai autobusa sartuta daude, kafea norbere kontura.

Joateko asmoa duzuenok aurrez txartela erosi Goikoetxe-enean. Txartelak erosteko azken eguna bihar izango da.

Ahal duzuen guztiok animatzea gustatuko litzazuke denon artean egun eder bat igarotzeko.

## Elebitasunari buruzko hitzaldia antolatu dute

**Alegia** » Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendik emango dute ostegunean; lehena gazteleraz izango da eta hilaren 17an euskaraz.

### ERREDAKZIOA

*No sabemos euskera... Como podemos ayudar a nuestras hijas e hijos?* hitzaldia antolatu du Alegian, San Juan eskolako guraso elkarteak eta San Juan eskola bera. Laguntzailea, berriz, Alegiko Udala izan da. Datorren ostegunean gazteleraz izango da eta euskara ongi menperatzen ez dutenen kasua izango dute hizpide, eskolan bertan, 19:00etan. Hilaren 17an, berriz, euskaraz, ordu berean, eta euskara ongi menperatu baina gazteleraz bere lekua ere baduela kontuan hartuta.

Hizlariak Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendi izango dira; lehenengo kazetari eta guraso bezala ariko da, eta bigarrena, gizarte hezitzailea da eta euskara bultzatzen esperimentzia handia dauka. Euskal Herriari euskara eta gaztelera erabil-tzen ditugu gehienbat, eta guraso-ek gero eta galdera gehiago daukate honen aurrean, kasu as-kotan gurasoek ez baitituzte bi hiz-



Julio Ibarra, hitzaldi bera Villabonan egin zutenean. NAJARA GARZIA

kuntzak guztiz menperatzen. Errealitatean ematen diren egoera arruntentatik abiatuko dira bi hizlariak eta hainbat zalantza argi-tuko dituzte honen inguruan.

Osteguneko hitzaldian elebita-suna jorratuko dute, eta guraso

gehienek dauzkaten kezka argi-tuko dituzte: elebiduna izatearen abantailak, eskolako lanetan nola lagundu, euskara eta gaztelera na-hastearen aurrean zer egin... Etxe askotan arruntak diren egoerak, beraz.

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
IKAS KOMUNITATEA  
**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**  
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkontza.net

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

**samaniego**  
Telefonoa: 943651063  
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com  
Posta elektronikoa: 012244aa@hezkontza.net

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTEK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA

**ORIXE**  
Telefonoa: 943651387  
Webgunea: www.orixe.net  
Posta elektronikoa: 012980aa@hezkontza.net

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATXILERGOAK

**D EREDDUA - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA**  
**MATRIKULA EPEA: MARTXOAREN 31tik APILAREN 11ra**

**LASKORAIN IKASTOLA**

**KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE**

www.laskorainikastola.net

**E Elkarrizketa****ESTHER ALDUNTZIN** › Dekoratzaila

**Dekorazioa** » Esther Alduntzinek makina bat urte daramatza bere bezeroen etxebizitzak atontzen, antolamendutik hasi eta ñabardura txikiak kontutan hartuz.

**NAIARA GARZIA**

Esther Alduntzin (Leitza, 1970) 23 urte zituela hasi zen interiorismoaren munduan lanean. Mundu horretan lan egitea zaila izan arren, 15 urte hauetan bere enpresa srtu du eta bere lana bezeroak beraien etxeetan gustura sentiaraztean datza.

**Nola hasi zinen?**

Tolosan interiorismoa ikasi nuen, baina azterketak Bartzelonan egiten genituen. Ikasi nuen zentroan aukeratu egin behar zenuen, dekorazioa edo diseinu grafikoa ikasi nahi zenuen bigarren urtetik aurrera eta nik argi neukan.

**Zergatik?**

Nire familian beti gustu handia izan dute bai nire amonak, nire amaren aldekoak, baita nire attek ere, txabola politak egiten ditu eta nire amari ere mundu hori asko gustatu izan zaio.

**Gero nola jarraitu zenuen?**

Mundu horretan sartzea oso zaila da, eta emakumea izanda are zailagoa, obrako jendearekin egin behar baituzu lan eta orduan zailagoa zen, nahiz eta orain ere badauden batzuk ez dutenak onartzen zuzuk gauzak nola egin behar diren esatzen.

**Iragarki laburrak****SALGAI**

■ **Poney-a.** Poney bat saltzen dut. 605 71 99 33.

■ **Autoa.** Peugeot 306, HDI, 2.0, 2002. urtekoa. 140.000 km. Egoera onean. 675 70 28 15.

■ **Etxea.** Tolosa erdian 2 logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

■ **Txakurkumea.** Border Colli arrazako txakurkumeak salgai. 653 71 12 59.

**LANA**

■ **Etzeko lanak.** Esperientzidun emakumea, interna moduan etzeko lanak egiteko eskaintzen da. 646 76 39 34.

**GALDUTAKOAK**

■ **Txakurra.** Aresoko mendian ar-tzain-txakurra galdu da. Deitu 648 64 07 12ra.

**BESTELAKOAK**

■ **Txakurkumea.** Border Collie arrazako txakurkumea oparitzen dut. Interesatuak deitu 658 70 59 12ra (Xabo).



N. GARZIA

**«Nire lana norbera bere espazioan ongi sentiaraztea da»**

tea. Igeltseroen munduan buru-belarri sartu nintzen.

**Eta zer egiten zenuen?**

Nire gizonak hor egiten zuen lan eta lana eskatu nion. Gu bitarteko hutsunetako lanetan espezializatuak geunden, azulejuean bereziki. Azalera oso handiak egiten genituen denbora gutxian.

**Eta bitartean ikasten jarraitu zenuen?**

Bai, orduan hasi ziren 3 dimentsioetan lan egiteko programa hauek eta nire lanerako hauek ikastea oso garrantzitsua zela iruditu zitzaidan, jendeari asko kostatzen zaiolako ikustea gauzak nola geldituko diren dena erakusten ez badiozu. Eta aurretik mesfidantza hori haustea oso zaila denez iruditu hori ikasi nuen, eta egia esanda oso erreminta ona da.

**«Lan honetarako oso garrantzitsua da artearen mundua oso gustukoa izatea»**

**«Azken batean dekorazioa bakoitzaren eszenarioa da, bere gauzekin bete behar da»**

**«Garrantzitsuena da jendea ongi ulertzea eta berak barruan duena ateratzen laguntzea»**

**Bezeroei, beraz, beti erakusten diezu beraien etxea nola geldituko den?**

Beti, eta gainera orokorrean aurreikuspen proiektua egin ondoren entregatzen dira. Nik aurreproiektuarekin egiten dut, bezeroak ideia egin dezan. Gero normalean pixka bat aldatu egiten da.

**Zure lanerako zure ustez ideia artistiko batzuk izatea ezinbestekoa al da?**

Nire ustez lan honetarako oso garrantzitsua da artearen mundua oso gustukoa izatea, plastika, koloreak... dena erlazioan atuta dago.

**Adibidez, ze arkitekto gustatzen zaizu?**

Oso modan dagoen Frank Gehry, asko gustatzen zait, Guggenheima egin zuena.

**Zergatik?**

Nahi duena egiten duelako eta uartsa delako. Inguruan dauden gauza guztiekin jokatzeko du, argiarekin, bolumenarekin, espazioarekin, itzalarekin...

**Eta ze margolari gustatzen zaizkizu?**

Modrian, Gauguin, Van Gogh, impresionistak... Bizirik dagoena eta asko gustatzen zaidana Jose Mari Olaza donostiarra da. Oso lan garbiak egiten ditu, intuitiboak... Gero badago Tolosan Iñaki Epelde izeneko beste margolari bat, honek koloreak asko erabiltzen ditu eta gero xalotasun puntu bat dauka bere obretan oso garbi uzten duena.

### Zuretzako zure lanean zer da garrantzitsua?

Niretzat garrantzitsua da zeinek eskatzen didan lana, hau da, pertsona hori ongi ezagutzea, ze bizimodu daraman eta bere bizitza nolako den jakitea. Azken batean dekorazioa bakoitzaren eszenarioa da, orduan bere gauzekin bete behar duzu, bere bizimoduarekin. Jendea ezagutzea, berarekin konfiantza bat sortzea, eta hori aurrera eramatea, hori da garrantzitsua. Badaude pisu batzuk oso ilunak direnak eta gero oso ongi gelditzen direnak, ilusioarekin egin duzulako eta bezeroa ongi ulertu duzulako. Garrantzitsua da jendea ongi ulertzea eta berak barruan duena ateratzen laguntzea.

### Bezeroak zer nahi duen ulertzea kostatu egiten al da?

Niretzat zailena da. Gainontzeko lana handia da, baina honera ekartzen duzunean eta bezeroak argi daukanean zuk lan hori egin behar diozula, zurekin jada konfiantza hartu duenean, honera ekartzea eta lan hori aurrera eramatea erraza da, orduak sartzea da azken finen, baina berarekin lotura hori lortzea... hori da prozesurik zailena, batez ere familia batean jende asko dagoenean, denen ohiturak ezagutu behar baitituzu. Nire lana norbera bere espazioan ongi sentiaraztea da.

**Eta horretarako erabiltzen duzun oinarriko erreminta testa da, ez?**  
Bai, nik test bat pasatzen diet bakoitzak ze lehentasun eta ze fantasia dituen jakiteko. Hori oso garrantzitsua. Jendeari kostatu egiten zaio zer fantasi dituen esatea.

### Gero zu zure autonomia horretan lana sortzen ari zarenean, zer da garrantzitsua?

Argiarekin jokatu ahal izateak asko laguntzen ditu. Espazioarekin ere erraza da jokatzeko. Noski, askoz ere politagoa da nahiko argia eta nahiko altura daukan etxe bat hartzea, horrekin lan egitea oso erraza baita, baina espazio txikiarekin ere gauzak egin daitezke. Espazio zailarekin batzuetan gauzak hobeto ateratzen dira, gogo handia jartzen duzulako.

### Nola hasten zara etxea antolatzeko diseinatzen?

Aurrena planta hartu eta neurriak hartzen ditut eta orokorrean nik egiten dudana da zona intimoa, hau da, lo egiteko gelak eta bakoitzaren intimitatea gordetzeko gelak, alde batean jarri eta sarrera aldean saiatzen naiz bizi soziala egiteko gelak jartzen. Ahal badaiteke hori egiten dut.

### Zergatik?

Iruditzen zaidalako edozein bizimodu bi zati daudela, bat zuretzat behar duzuna, zure buroarekin bizitzeko, eta bestea etxeko gaineko guztiaren erlaxatze eta kanpotik heldu den jendearekin. Hori bereiztea oso garrantzitsua da.

### Zenbat estilo daude?

Estilo asko daude: egin dezakezu etxe bat vintage esaten dena, nostalgikoa bezala, nahiz eta hau bere estilo bat ez den, edo izan daiteke orain arte eman den minimalista... orain adibidez, barrokoa sartu da. Estiloekin gertatzen da modarekin gertatzen dena. Gero estiloak ere nahasi daitezke, adibidez, baserri batean egitura lehengo materialekin daukazunean eta gero gaur egungo gauzak sartzen dizkiozunean. Hori da estilo bat oso zaila dena ongi gelditzea, baina lortzen duzunean, oso polita gelditzen dena. Bi estiloek indar gehiago hartzen dute.

### Estilo minimalista jada modaz pasatu da?

Badago jendea berez horrelakoa dena, bizitzan gustatzen zaiona dena oso garbi izatea, oso txukun, gauza gutxi izatea... orduan errepertatu egin behar da. Niri pertsonalki estilo guztiak gustatzen zaizkit, edozein estilo da polita ongi eginez gero.

### Ze estilo da jendeak gehien eskatzen dizuna?

Jendeak orokorrean nahi duena zera da, bere fantasia aurrera eramatea, baina nola ez den ausartzen, iruditzen zaiolako zerbait bereziegia edo ezberdina dela, jendeak orokorrean zerbait modernoa baina klasikoa eskatzen dit. Hasieran erreprimatu egiten dira. Bukerana ez, zuk erakusten diozu ze mundutan sartzen ari den, merkaturan dauden gauzak erakusten dizkiozu eta azkenean ausartago bihurtzen dira.

### Eta jendeak emaitza ikusten duenean?

Hori niretzako laneko gauzik hoberena da, azkenean ikustea jendea ze gustura gelditu den bere etxearekin eta bere espazioarekin.

### Etxe osoa diseinatzeko eskatzen dizute edo zati bat?

«Nik test bat pasatzen diet bakoitzak ze lehentasun eta fantasi dituen jakiteko»

«Espazio zailarekin batzuetan gauzak hobeto ateratzen dira, gogo handia jartzen duzulako»

«Niri pertsonalki estilo guztiak gustatzen zaizkit, edozein estilo polita da ongi eginez gero»

Denetatik. Orokorrean etxe osoa diseinatzeko eskatzen didate, antolamendua eta dekorazioa, baina egin izan ditut umeentzako logelak, edo antolamendua bakarrik edo altzairuak.

### Egin duzun gauzarik zailena?

Dentistabaten kontsulta pisu batean bihurtzea. Lehendabiziko pisu bat zen, oso iluna, txikia eta azkenean oso polita gelditu zen, eta bezeroa oso gustura gelditu zen.

### Eta izan duzun esperientzi bereziren bat?

Donostiako pisu bat. Pertsona gazte batek egin zidan enkargua eta nahi nuena egiten utzi zidan. Berak baldintza bakarra jarri zidan, kolore gorria, beltza eta txuria nahi zituela, eta gaur egungo izatea, besterik ez zidan eskatu.

### Eta egin duzun lan polit bat?

Tolosan, San Frantzisko etorbidean, zaharberrituta dagoen erakuntza bat dago eta horko pisu bat diseinatu nuen, oso ederra, duplea. Hasieran hartu nuenean ona zeukan argi asko zeukala eta metro asko eta horrelako edifizio batean egin zegoela. Barrukoa, berriz, ez zihon bat kanpoko maila edo kategoriarekin eta horri presentzia ematea oso gauza ederra izandu zen.

### Hor, adibidez, etxaurrea ere kontutan hartu behar izan zenuen?

Bai, artxiboko lan bat egin nuen. Artxibora joan, arkitektoa zein izan zen eta nola lan egin zuen ikusi...

### Etxe batera sartzen zarenean lehenengo inpresio bat izaten al duzu?

Egia da izaten dela lehenengo inpresio bat. Zu espazio horretan sartzen zara etz dut esanen bukatutako ikusten duzunik, baina garbi ikusten duzu ze sensazio ematen dizun eta nola jokatu behar duzun, bai. Esaten da ba zakurra etxean sartzen denean lekurik hoberena aukeratzeko duela zerbait duelako? Ba sensazio hori ere ematen dizu, berezitasun bat segituan hartzen diozu espazio horri.

### Etxe goitik-behera atondu dezakezu?

Bai, baina atzean jende asko dago. Adibidez ehunei dagokienek, beti pertsona berekin egiten dut lan, Tolosako neska batzuk dira eta denda bat dute, Xogan, eta merkaturan dauden telarik onenak daukate. Oso denda txikia da, baina lana oso ongi egiten dute, gauzak ongi bukatzea gustatzen zaie eta niri horrek asko laguntzen dit nire lanean. Azoketara ere elkarrekin joaten gara. Mundu honetan diseinatzaileekin lan egiten da, gustua asko fintzen zaizulako. Behin mundu honetan sartuta ikasi egiten duzu ze diseinadore diren onak, estetikoki hobeak, teknikoki hobeak...

### Horien lanak non topatzen dituzu?

Azoketan aurkezten dituzte: Milanen, Parisen, Nueva Yorken, Bartzelonan...

### Bezeroek dirudunak behar dute izan?

Ez pentsa. Argi dagoena da lanbide elitista xamarra dela, baina nik jendeari esaten diot aurrena ze aurrekontu daukan esateko eta gero ni moldatuko naizela. Horrelakotan lan gehiago egin behar da, baina lor dezakezu. Irakasle bati etxea moldatu nion, aurrekontu baxuarekin eta oso polita gelditu zitzaion.



Apalak Toyo Itorenak dira, eta eserleklua, Pierre Poulinena. N.G.



Lanpara Patricia Urkiola diseinatzailearena da eta logela batean dago. N.G.



Logela honetako berezitasuna ohe atzeko zapia da. N.G.

## BERRIAK kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

### Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (luza daitezke)
- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

### Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

### Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculuma [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.



14°  
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	ESTALIA
BEROENA	11°
HOTZENA	4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Bisai eta Dilin musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.  
■ **Tolosa.** Kea ahots taldeak Javier Bello Porturen abesbatzetzako lanen bildumarekin argitaratu tako CD-aren aurkezpen kontzertua Santa klara komentuan, 20:15ean.

### Deialdiak

■ **Asteasu.** Kantu jira antolatatu du Usarrabi kantua abesbatzak. 12:00etan plazan elkartu ondoren, kantua herrikoiak abestuko dituzte kalez kale.  
■ **Irura.** Hilaren 12ko omenaldiko bazkarirako txartelak salgai daude Zaharren Biltokian, udaletxean eta liburutegian, 20 eurotan helduentzat eta 10 eurotan 12urte artekoentzat.  
■ **Tolosa.** Oargi mendi elkartek segurtasuna glaziarretan ikastaroa antolatatu du asteburu honetarako Gavarnien. Izen-ematea, elkartean edo oargi@telefonica.net helbidean.

### Zinema

■ **Tolosa.** Julian Schnabel zuzenariaren *La escafandra y la mariposa* filma emango dute gaur Leidor aretoan 17:00etan, 19:30ean eta



## Frantzia, aukeratuenetarikoa

**MILA OTAMENDI EGIGUREN (TOLOSA)** ■ Badirudi gure irakurle askok eta askok Frantzia aukeratu duela Aste Santuan oportetara joateko. Gertutasuna izan daiteke arrazoietako bat, baita Euskal Herrian eguraldi txar

ra iragarrita zegoela ere. Mila Otamendi tolosarrak ere Frantzia bisitatu du. Hauxe azaldu du: «Argazkia Aste Santuan atera dut Frantzian. Rocamadour herri xarmargarria ikusten da bertan, harkaitzetik zintzilik».

22:30ean. Eta Coen anaien *No es país para viejos* filma emango dute Leidor aretoan bihar 19:30ean eta 22:00etan eta etzi, berri, 20:30ean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Angel Arbe artistaren *Biogeometriak* lanen erakusketa Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-ko arbola, 3. 943 651040.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunikun.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Haizea Jauregi Aristi (Tolosa).** Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu asko familaren partetik.

**ARAMBURU**  
Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m<sup>2</sup>. guztiz eraberritua.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin. Trinkete auzoan.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. Igoailarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe.  
Salgai (Tolosa). Garajeak. San Frantzisko, Leidor azpian eta Amarotzen.  
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.  
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxler Zaldibian.  
Alokatzeko (Ibarra). Pabiloi industrialak, Leaburuko bidean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Irurako Ikastola**  
• (2-9 URTE)  
• Lehen Hezkuntza  
'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'  
San Migel, 5 • 20271 IRURRA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**  
• 2 urteko gela, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.  
• Kalitatezko hezkuntza euskalduna  
• Eguneratua eta irekia  
• Denen artean bultzatua eta zuzendua  
**MATRIKULA EPEA:**  
Martxoaren 31tik  
apirilaren 11ra arte  
**Matrikulazio Ordutegia:**  
943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net

**ISASTEGI sagardotegia**  
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 29 64  
www.isastisagardotegia.com - tolar@isastisagardotegia.com

**hirukide**  
Tel.: 943 673 949  
Tel.: 943 681 827  
Tel.: 943 673 917  
www.hirukide.org

**KALITATEKO HEZKUNTZA**